

## colaboraciones

Ez dezagun amorerik eman,  
egoerak min ematen badigu ere

Esan beharrik ba al dago euskarak bizi duen egoera larria denik? Euskal Herrian bizi diren erdarak (franziera eta gaztelera), ostera, egoera osasuntsuan daudela nork ukatuko? Bada, hau honela izanik, gure Herri honetan gauza xeblete eta mingarrik ikus, entzun eta bizi daiteke egunero. Denetarik mingarriena, enetzat, zera da: hainbat eta hainbat euskaldunek heuren arteko harremanetan erdara erabiltzen dutela entzutea. Arrazoi eta azalpen mordoia emango da, seguruenik, horrelakorik konprenitu ahal izateko. Eta askotan ulertu ere ulertu eginen dugu; inoiz ez, ordea, horrela jotkatzen dutenen arrazoiak justifikatzen hartu. Euskara horrela bazterteak min ematen dit. Euskara horrela bazterten dutenek eta, aldi berean, erdarari (gaztelera zein frantziarri) bultz egiten diotenen min ematen didate.

Euskaldun izanik, gure Herrian dauden erakunde publikoetara joaten bazara, askotan erdaraz egin beharrenean aurkituko zara atziztutun zaituen funtzionarioak euskaraz ez dakielako. Beronekin den dena erdaraz egin dezakezu edo euskaldun funtzionarioen bat atziztutun eska dezakezu. Zure/gure eskubidea da! Guk geuk, euskaldun garenok alegia, eusten ez badigu euskarari, gure



eskubideari, nork eginen du? Inork ez, jakina!

Euskal Herrian ditugun funtzionarioei, bertako (euskaldun zein erdaldun) herritarren zerbitzuan daudela jakinik, euskaldunok erdaraz egiteak min ematen dit.

Hego Euskal Herriko edozein errepidean ertzain edo polizia foralaren batekin topo egin eta gaztelaraz mintzatu behar izateak min ematen dit.

Gure edozein hiri edo herritako kaleetan udaltzainen batekin hitzegin beharra suertatzea eta beraz erdalduna delako geu erdaraz egitera behartzeak min ematen dit.

Denda, autobus, kafetegi eta abarretara sartuz gero, euskaldun askok eta askok botatzen duten lehenbiziko hitza erdaraz izateak min ematen dit.

Anitz euskaldunek telefonoa har eta besterik gabe erdaraz hasteak min ematen dit.

Euskaldun ugari analfabeto hutsa da bere ama-hizkuntzan eta hala ere bere horretan jarraitzeko lotsa izpirik ez du. Holakoek min ematen didate.

Politika nahiz kultura nahiz kirol nahiz... mundua dabilen «basko» askori euskaldun deitzeak min ematen dit.

Gure Herriko bizilagunen gehiengo erdalduna dela jakiteak eta euskaldun izaten ahalegintzen ez dela ikusteak min ematen dit.

Aipatu egoera guztiek eta beste zenbaitetik min ematen didate, min ematen digute euskaldun askori, baina ni ez naute etaipenera eramaten, horrokora baizik.

Euskaldunok! Euskaldun izaten jarraitu nahi badugu, euskaldun bezala bizi nahi badugu, geuk eutsi behar diogu euskarari, geuk eutsi behar diogu borrokari.

Egoerak min ematen badigu ere, euskaldunok, ez dezagun amorerik eman!

Txema AUZMENDI

## Euskarak bizi behar du

Hamar urte iraganak dira Euskal Herrian Euskararen lanetan hasi ginenez geroztik, hamar urte luze euskararen aldeko borrokak. Oraindik Frantziakoaren atzaparretatik ihesi nahian, gure herri honek beste burruka askoren artean euskararenari bereziki heldu behar zioneko ziurtasunez, jardun horri ekin genion.

Hamar urteotan Euskal Herrian Euskaraztik gogorki salatu izan dugu, beren burua abertzale izena ematen dieten partidu horien jarrera; elebitasunaren izenean, Euskararen zapalkuntza eta diskriminazioa lejitimatu dutenen jarrera. Argi bait dago, Mckey soziolinguista famatuak dioen bezala, gizarte berean bi hizkuntza badago funtzio sozial bereberak betetzen, bata itzaldu egiten dela. Gure herriaren kasuan ezagun da zein den itzalpean dagoena.

Euskara, partidu horien ahotan etengabean agertu orrien, ahoan bertan hiltzen diren hitzak besterik ez dira. Euskararen sustinpena daraman legeriaren aurrean, oraindik ausartzen dira lotsagabeki, faltsukeriz eta gezurrez jantzitako hitzekin hizkuntz jenozidioa estaltzen.

Ikusi besterik ez dago egundoko hizkuntz legeriak inposatzen digun egoera: erdara jakin beharreko hizkuntza den artean, euskarari askotan ingeles edo alemanaren pareko garrantzia ezartzen

diote, aukera pertsonal gisako hizkuntza, alegia.

Hortxe ditugu aurrepausu bezala agertu nahi izan duten «Beredu» «salbatzaile» hori, azken batean euskalduntzeko balio ez duen itenbide kaxkara; administrazio arloan egin berri den plan-gintza, 5 urteko epean langilegoaren %5a euskalduntzea lortpen handi gisa agertzea; «Vascuencearen legea», euskararen salbaziorako baino itomenerako sortua eta bere oinarriak ere errespeta-tzen ez dituen.

Egoera honen aurrean Euskal Herrian Euskarazetik elebakartasunaren aldeko apustua egin dugu. Bide honetatik eta iaz hasitako kanpainaren emaitza gisa, duela egun batzu burutu zen Lizartzan «Herri Elebakarren» lehen eguna. Euskal Herriko 25 herri euskaraz bizitzeko erabakia hartu zuten, eta lehen aipaturiko legeriak oztipoak baino ez ditu ezarri, Gobernadore Zibilek ipinitako errekurtsioak, ilegalizat joz euskarra hutez bizitzearen erabakia.

Euskaldunok Euskal Herrian Euskaraz bizitzeko dugun eskubidea ukatu eta zapaldu nahi badute ere, garbi dugu hartutako erabakiaren bidean jarraituko dugula. Gaurkoan, euskaltzale guztien egoera: erdara jakin beharreko hizkuntza den artean, euskarari askotan ingeles edo alemanaren pareko garrantzia ezartzen

TXILLARDEGI

## cartas

Bloqueo viene de  
«bloque»

Voy a referirme al autodenominado «bloque democrático», para intentar acercarme lo más posible a lo que ellos llaman «normalización» y que dicen que es lo que ya vamos logrando.

Nace este «democrático» bloque tras torpedeadas conversaciones de Argel, teniendo su primera ocasión importante para «lucirse» en un trabajo verdaderamente arduo: silenciar y vender la política de dispersión de presos políticos vascos, donde destacarán los partidos «vascongados» de este pétreo bloque, debiendo convencernos del grado de respeto a los derechos humanos que supone por parte del Estado español, el que más de 400 presas y presos políticos vascos, por su condición de tales, y como respuesta a esas recientes conversaciones de Argel, sean deseminados por cárceles todavía más lejanas a sus casas, con el único fin de castigarles, ya que sabían de sobra que no se van a arrepentir, siendo únicamente una medida de coacción. Tienen como misión importante también silenciar todas las denuncias de los familiares, silenciarse ellos mismos ante las agresiones que dichos familiares están sufriendo y criminalizar organizaciones que ayudan a presos políticos y familiares, como es el caso de Gestoras Pro-Amnistía. Eso sí, para salvar la «Democracia».

A partir de aquí, toda su función es crear un hermoso «cuento», donde lo que no les gusta, no existe porque se oculta o se maquilla. Es muy sencillo, en un caso se aumentan las cifras y se toman panorámicas desde el aire y en otros se divide la cifra por el uno seguido de tantos ceros como sea necesaria para la ocasión y si se llegan a dar imágenes, se enfoca la pancarta en una «bonita toma» desde abajo.

Así van pasando los meses y llegan las elecciones, donde en pro de la «Democracia» el bloque llega a su apoteosis y en este punto, es donde sería interesante, cuando menos, echar una ojeada a las hemerotecas en relación con todas las declaraciones que en ellas se hicieron.

En definitiva, y por intentar resumir sobre un tema en el que, al contrario, habría y habrá que extenderse mucho, ese autodenominado bloque «democrático», fundamentalmente lo que trata de hacer es crear de la nada, con los poderosos medios de que dispone, la realidad que a él le gustaría que fuera; intenta crear, y eso es lo peligroso, un «estado de opinión», cuando el estado de opinión no debe ser creado, sino se debe formar en cada ciudadano de forma libre y en base a amplios caudales de información y transparencia de todos y cada uno de los hechos de la realidad diaria, por poco que nos gusten o favorezcan.

Josu, no te conocía pero nunca te olvidaré.

ANAIA

## colaboraciones

## Ikastoletan euskaraz eta kitto

Euskal Herriak Euskeraz-ek (EHE), orain egun batzuk Lizartza herrian bildu zituen euskarra hutezko apustua egin nahi duten Udalak eta, datorren asteburu honetan, berriz, beste ekintza bat gehiago antolatuta du ildo beretik: «Euskal Herrian euskeraz eta kitto» lemapeko aldarrikapen publikoa.

Geure aldetik itxilean egon ezinik, agirian zera hau utzi nahi genuke: gizarte euskalduntzearen aldeko jarrera eta jokabide guztiak sendotu beharrean gaudela eta, beraz, gisa honetako ekintzak eragin, bultzatu eta, azken finean, indartu egin behar ditugula.

Horregatik, «Ikastoletan euskaraz eta kitto» egiten ari garen bezala, eskola osoa euskalduntzea, Euskal Eskola, aldarrikatu beharra sortzen zaigu, nahiz eta gauza jakina dugun eskola euskalduna ez dela nahikoa izango gure gizarte osoa erabat euskalduntzeko. Helburu hori lortzeko beste agente batzuen eragina behar da derrigorrez, begibistakoa denez, baina honek, euskalduntzea prozesu honetan, eskolari ez dio kentzen bere egim behar orozkaezina. Eskolaren euskalduntzeak beste sektore sozial guztien euskalduntzearekin batera joan behar du: komunikabideak, administrazioa, industria, merkataritza eta... eta euskalduntzeak ez du izan behar buruz eta legez onartzen den eskubide legi-

timo bat bakarrik, baizik eta beharrezko hizkuntza bat hiztunentzat.

Guregandik hurbil dugun tesi jakin baten arabera, «gaurko hizkuntz-egoeran edozein hizkuntz-komunitate bere superbibetzirako bera hizkuntza, hizkuntza nazionalaren mahaian ipini behar du guztienez, hizkuntza eskusibo bezala, honek berarekin baitakar begituan hizkuntz tentsioa hurrengo eskala batetara igotzea». Euskarari gogozkiolarik, «badiudi garbi dagoela kanpotarren aldetik euskararen ikasketa sendotzen bada bakarrik (eta bertako kultur jabetzearekin batera, noski), orduan euskarak automatikoki indartu dezakeela bere posizioa hizkuntza nazionala bezala. Ikasketa hau martxan jarri eta aurrera ez bada, erdarak euskara desplazatzen jarraituko du bere lurra hizkuntza nazionalaren funtzioetik eta, gero eta funtzio sozial mugatuetara baztertuko du».

Tesi honek diocenez arabera, eskolaren euskalduntzearen plan-teamenduak euskararen egoera linguistikoaren hobetzea jomuga bezala eduki behar du, hizkuntza nazionalaren estatusera bultzatuz, euskal lurraldearen esparruan beharrezko eginez, eta euskarazko sorkuntza literarioak eta bestelakoak, pentsamenduaren elaborazioa eta argitalpenak bultzatuz, kanpoan kultur hizkuntza bezala ezagutua izan dadin.

Bestalde, nahikoa demostratuta dago, bai nazioarte mailan eta bai euskal esparruan egin diren ikerkuntzetan, bi hizkuntza edo gehiagoren ikasketa —familiaokoa eta beste bat/batzuk— onuragarria dela haurrentzat, bere kapazitateen gerapenerako zein eskolako errendimendurako.

Ondorio hauek egiazkoak dira, eta ikastolaren esperientzia da argibiderik garbiena, baldintza batzuk errespatazen diren neurrian.

Bukatzeko zera hau gehitu nahi genuke: gaur egongo errealtatearen balorapen politikoetan ez gago sartzen eta gutxiago oraindik errealtate horren aldaketa proposamenetan, eta baita hori gure esparru. Pentsatzen dugu mapa politiko eta hornamendu juridiko kointerualen gainetik badela Euskal Herrian oinarrituko sustrato linguistiko eta kultural bat, Euskal Herri osoaren prespektiba orokor batetik ikusi beharko litzatekeena. Era gutzitara gaurko legeak ez badute errespatazen edota oinarritzeko eskubide baten aurrean oztipo badira, komunitate linguistiko bati irakaskuntza bere hizkuntzan ematea eragotziz, berrikusi egin beharko dira lege horiek. Bat egiten dugu EHE-kin azken urteotako lanari so egiteko horretan.

EUSKAL HERRIKO IKAS-TOLENEK ELKARTEA